

“ZUBELTZU”

II. Bertso Paper Sariketa

DEBA-ITZIAR 2010



Gaztetxoak • Gazteak • Helduak

Zer ote da idazmina? Esan beharra eta ahalegina? Bertso paperotan bertso-jartzaileak bizi dituzten minak atzemango ditugu. Bakoitza bere minak bizi du.

Denbora-Makinan atzera-aurrera ibiltzeko grina, joandako garaien oroi-mina, etorriko direnen jakin-mina...

Gazteen natura-mina; atzo, gaur eta biharko euskararen mina; espetxeratuarena...

Helduek ere bere minak azaldu dizkigute: Auzoko tabernari jatorrarekiko mina, herriari begira duguna eta atxilotuaren gorputz-arimen minak.

Min horiek guztiak eta gehiago azaltzeko ahalegina duzu orriotan. **Zubeltzu** sariketaren bigarren urrats honetan gazteen ekarpen ugariak begirada itxaropentsua eman digu. Ehun urte barru ez ezik, datorren urtean ere izango dugu barrua bertso-paperetan hustuko duenik.

Irakurle, bete-bete utziko zaituen liburuxka eskutan hartu eta bertako bertsoak kanta itzazu. Badakizu: “Kantatuaz, kantatuaz, zorion eta penak...”

**Deba Udaleko Euskara Batzordea
eta ZUHATZA Euskara Elkarte**

“ZUBELTZU”

Bertso Pakete

SP 11
BT

GAZTETXOAK



DENBORAREN MAKINA

Badut bidaiatzeko
ederra aukera
nahi dut ikusi euskara
badoan aurrera.

Ailegatu naiz eta
noa ikertzera
belarriak ireki
eta entzutera.

Entzut dut gutxi erdera
ta asko euskera
bueltan nator berriro
poz-pezik etxera.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Julia Ron

1. SARIA LEHEN HEZKUNTZA

BIDAIA EGINGO DUT

Bidaia egingo dut,
etorkizunera
denboraren makinan
ondo pasatzera
100 urte pasata
badago euskera
ze pozik jarri naizen
banoa entzutera.

Doinua: Maritxu nora zoaz 2

Egilea: Unai Matias

2. SARIA LEHEN HEZKUNTZA

DENBORAREN MAKINA

Denboraren makinan
bidaia dut egin
eta aurkitu egin naiz
zenbait sorpresekin.

Futbol jokalaria naiz
Reala ekipoa
gol asko sartu ditut
Euskal Selekzioan.

Oso pozik bizi naiz
aita ta amarekin
arrebak gizona du
bi seme-alabekin.

Deba herri euskaldun
baten bizi gera
Euskeraz hitz egiten
guztiok batera.

Nire ametsa dut ta
jarri naiz kantatzen
egia bihurtzeko
ia errezatzen.

Doinua: Ikusi nuenian

Egilea: Beñat Escudero

3. SARIA LEHEN HEZKUNTZA

DENBORAREN MAKINA

Denboraren makinan
ehun urte aurrera,
atea irekitzen
euskara entzuten da.

Baserritarrak kantan
neskatoak dantzan,
hori mundu ederra
euskararen saldan.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Maria Ibarluzea

SARI BEREZIA LEHEN HEZKUNTZA:

“Denboraren makinan etorkizunera bidaiatu dut”



DENBORAREN MAKINA

Aurrera pauso handiak dira
lehenago garaietatikan
ez dakit bada izango dugun
horrela jarraitzerikan.

Denbora nahiko dagola baina
ez gera inora iristen
etorkizuna ona ez degula
hasia nago pentsatzen.

Buruko mina izaten degu
jaio eta berehala
aurrerapena ona da baina
tamainan izaten bada.

Lehenago lasai bizi ziraden
horrenbeste gauzik gabe
ezin al da orain bizi hobeto
tresnak lagata aparte.

Doinua: Santa Eskea

Egilea: Naia Agirregabiria

Hemen nao bidaiatzen
denbora makinez
ikusten nolakoa den
euskara ehun urtez
ez nago oso pozik
ikusten dudanez
guk ikasi behar dugu:
erdera hemen ez!

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Amaia Arozena

Kotxe hegalarian
eskolara noa
maisua bizikletan
aldapatik gora.

Maisuak bi antena
dauzka bekokian
botoia sakatuta
la denok pakian.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Ander Arrieta

Go! denbora makina
ehun urtetara
eta ikusiko dugu
datorrela erdera.

Aurten sartuko gara
Euskara lantzer
aber mila urte barru
datorren euskera.

Euskara do gutxitzen
zergatik murriztu?
Erdera kaka hori
nahi degu borratu.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Josu Beñaran

Denboraren makinan
bidaian joan gera
lehenengoan bi mila
eta berrehunera.

Euskaraz hitz egiten
zeuden gazteenak
oso politak dira
beraien etxeak.

Pertsona danak ziren
berde ta moreak
beldurrik ez eukitzen
ziren hoberenak.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Nora Movellan

Denboraren makinan
hona eta hara
Diplodokusengana
bildurtzen bagara
gero iraganera
herri modernora
eta ezagutu dut
pila mota lora.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Nora Salegui

Denboraren makina
izan leike ona
botoia sakatuta
aurrera badoa
Dinosauro politak
ikustera noa
lagunduko didazu
Euskararen goran.

Doinua: Dama gazte Xarmanta
Egilea: Leire Amesti

Espazioan zehar
denboran aurrera
ezin dut nik sinistu
bertako euskera.

Hortikan paseoan
lagunak aurkitu
beraiek ni ikusita
oso dira harritu.

Euskaraz hitz egiten
ari gera, kito!
Baina bueltatu behar naiz
penaz eta tinko.

Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Maddi Martin

Denboran bidaiatuz
paisaje ederrak
Dinosauro, landare
Inurri ta akerrak.

Makina aurkitu dut
trastero zaharrear
gauzak politak ditu
bere barrenean.

Doinua: Ikusi nuenean
Egilea: Sara Goikoetxea

DENBORAN BIDAIATU DUT

Denboraren makinan
dut bidaiatuko
antzinako pertsonak
Euskara ikasteko.

Niri gustazten zaidan
hizkuntza euskara
denboraren makinan
bidaia horretara.

Doinua: Ikusi nuenean
Egilea: Maialen Izeta

DENBORAREN MAKINA

Makinaren ondoan
egin nuen bart lo
bidaiaren segidan
txalo eta txalo.

Atzoko egunean
Nilora joan nintzen
ta gaur gauean, berriz
bidaia jarraitzen.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Dorleta Aizpurua

Denboraren makinan
etorkizunera
Euskara badakit ta
goazen mintzatzera!

Dinosaurioen garaian
Euskara aurrera
Euskara badakite
goazen ikustera!

Doinua: Ama begira ezazu

Egilea: Maialen Beristain

Makina hartu eta
denbora atzera
Euskara ikusi nuen
mintzatzen gainera.

Euskara mintzatzea
oso erraza zen
baina desagertzeko
zorian zegoen.

Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Nikolas Egaña

Denboraren makinan
banoa bertsotan
Euskara erakutsiz
beste garaietan.

Dinosauroak zeuden
Diplodokus zela
argi ta garbi utziz
galduko nuela.

Oso pozik nagola
horrenbeste elur
baina bueltatzeko da
ordua ta agur.

Doinua: Ikusi nuenian
Egilea: Paola Iñurrieta

Denboran joan nintzen
Dinosauriotara
bertan ikusi nuen
Diplodokus tzarra.

Kobazuloan bizitzen
telebistik gabe
komunik ez zaukaten
ur berorikan bez.

Berriro buelta nintzen
Jesus-amen baten
hantxe ikusi nuena
bertan laga nuen.

Horixe gertatuta
orain maitatzen dut
eskutan daukadana
etxeko lan batzuk.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Andoni Garrido



Nik dut makina zahar bat
gordeta etxean
bidaia egingo dut
konturau gabean.

Makinan ibili naiz
aurrera ta aurrera
nahi dut nolabait jakin
nola den euskera.

Zorabiatu egin nau
oraingo erantzunak
Euskeraz hitz egiten
dira txapeldunak!

Euskera arraro bat
hitz egiten dute
nola pasatu diren
hemen ehun urte.

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Itzale Laka

Lehen goan joan nintzen
bidaiatu nahian
ta hala sartu nintzen
Denbora makinan.

Botoi bati sakatuz
denboran atzera
Dinosauroen garaian
han nintzan atera.

Doinua: Ikusi nuenean

Egilea: Oier Beristain

Denbora makinetan
begira euskera
hizkuntza ehun urtetan
badoa aurrera.

Denbora makina adi!
Dinosaurio asko
eboluzioa sortu
ta bertan gauza asko.

Doinua: Ikusi nuenian
Egilea: Irati Aznal

Denboraren makinan
sartu naiz korrika
lehen gizakien garaira
joan naiz ni irrika.

Gaur goizean altzatu
eta hau ikusi
Denboraren makina
dago bizi-bizi.

Doinua: Ikusi nuenean
Egilea: Sara Lili

Denboraren makinan
egin dut bidaia
biharko egunean
deskantsu lasaia.

Makina bat aurkitu
dut nire sotoan
bidaia bukaeran
lo bere ondoan.

Denboran bidaiatuz
Euskara irakasten
oraingo urteetan
hizkuntza mintzatzen.

Doinua: Ikusi nuenian
Egilea: Janire Torronteras

DENBORAN ZEHAR

Denboraren makinan
egin dut bidaia
bidaia egiteko
bazen bai garaia.

Hizkuntza ederrena
da, bai, gure Euskera
inoiz ez da galduko
nire hitza hauxe da.

Euskera 100 urte barru
nola izan daiteke
jendia ibili bihar
horretan jo ta ke.

Doinua: Errota zahar maitea
Egilea: Ane Arrizabalaga

DENBORAREN MAKINA

Denboraren makina
salto mendeetan
eta euskara dago
mende guztietan.

Makina denboretan
Euskaraz hitz egin
Euskara babesteko
aurreraka egin.

Doinua: Ikusi nuenean

Egilea: Maite Iglesias

Denboraren makinan
joan naiz Parisera (bis)
Torre Eiffela ikusi
ta ondoren etxera.

Han gaua dela eta
goaz afaltzera (bis)
pixkat dibertitzeko
goazen jolastera.

Doinua: Orbelak airez aire

Egilea: Paula Arregi



Denboraren makinan
mila urte atzera
bidaiatu nuen ba
dena itsasaldera (bis).

Iritsi nintzenean
beste herri batera
iruditu zitzaidan
hara! Ze Euskera!

Doinua: Ama begira zazu

Egilea: Leire Movellan

Denboraren makinan
nahi dut bidaiatu (bis)
eta ziztu bizian
urrun ailegatu.

Unibertso aldean
nabil ni aidean (bis)
eta oraintxen bertan
bizi naiz parkean.

Doinua: Orbelak airez aire

Egilea: Ainhoa Agirregomezkorta

Denboraren makinan
nahi dut garraiatu (bis)
baina horretarako
behar dut prestatu.

Hogei bat urterekin
joan naiz ni makinan (bis)
Karibera heldu ta
egon naiz piszinan.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Andoni Garcia

Denboraren makinan
joan naiz Parisera (bis)
eta neukan gogoa
zilarra ikustea.

Lagun Jarirekin joan naiz
gero bazkaltzera (bis)
joan gaitezen oraintxe
muxu ematera.

Bazkaldu eta gero
Jari nekatuta (bis)
eta nik esan diot
goazen logeleta!

Nekatuta nago ni
goazen Sakoneta! (bis)
Ondo pasa degu ta
biok bidaietan.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Itsaso Iciar

Denboraren makinan
sartu garenean (bis)
botoia sakatu eta
joan gera aidean.

Baina traste zahar hau
apurtu egin zaigu (bis)
eta aitak esan du:
“Oin hoi're badegu”

Konpondu duenean
ikusiet halaxe (bis)
Deban dragoiak daude
Bilbon bezelaxe.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Ane Agirregabiria

Denbora makina hortan
nahi det bidaiatu (bis)
hemen ondo egon arren
nahi det hori lortu.


Faltan botako nuke
nire familia (bis)
Baina han ibiliko naiz
bilatzen herria.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Andoni Beristain

Denboraren atzera
joan naiz ikustera
ea entzuten dudan (bis)
besteen Euskera
Denboraren makinan
sartu eta etxera
laster iritsiko naiz
garai normalera.

Doinua: Bautista Basterretxe

Egilea: Ibai Pérez de Albeniz



Denboraren makinan
joan naiz salto batez (bis)
ta ikusi dut guztia
soilik begi batez.

Zer ikusi ote dut
Makina horretatik? (bis)
Ene! Nire herria
desberdin lehenotik.

Doinua: Orbelak airez aire
Egilea: Janire Salegi

Hamar bat urterekin
sartu nintzen hemen,
eta atera nintzen
isla polit baten.

Berrogei urte neuzkan
eta alta nintzen
ile lisoa ere
nuen garai baten.

Denboraren makinan
bidaiatu ondoren,
etxera itzultzeko
gogoan banuen.

Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Enara Zendoia

1

Makina bat aurkitu
nuen nik ganbaran (bis)
irrikitan nengoen
joateko bidaian. (bis)

4

Makinara itzuli
nintzen segituan (bis)
ez nuen problemarik
nahi hango munduan. (bis)

2

Denboraren makinan
etorkizunera (bis)
mundo arraro hortan
ez zegon euskera. (bis)

5

Ikusiko zenuten
ez zegoela Euskera (bis)
Euskerako hiztunak
oso gutxi gera. (bis)

3

Ordutan egon nintzen
ibili ta ibili (bis)
baina ez nuen entzuten
euskera zipitzik. (bis)

6

Horregatik Euskera
zaindu behar dala (bis)
etorkizun hori bai
aldatu nahi bada. (bis)

Doinua: Orbelak airez-aire.

Egilea: Malen Egaña



ASPERTUTA NAGO

Aspertuta nago ta
ez dakit zer egin,
arratsalde honetan
eguraldi honekin.

Bidaia egingo dut
etorkizunera
Euskara badagoen
inbestigatzera.

Iritsi naiz oraintxe
etorkizunera
oso pozik jarri naiz;
badago Euskera.

Egin ditut lagunak
oso pozik nago
baina banoa bueltan.
Agur eta adio!

Egilea: Ekaitz Zubimendi



EUSKARA

Euskal herriko hizkuntza zaharra
ta dakitenen altxorra
milaka urte gure lurretan,
jardun du gure ahotan.
Pozoindutako garai latzetan
tinko eutsi diona da
hiztunak ez badu hitz egiten
laster desagertuko da.

Mendietako baso zabalak
gure kolore berdea;
zuria, kostan aurkitzen dugun
olatu baten aparra;
gorria, bizirik jarraitzen duen,
Euskararen su garra.
Bihotz bakoitzeko harmarri hortan,
zizelka dezagun euskara.

Euskara ez galtzeko borroka honetan
alez-ale partaidetzan
etorkizunean bizi daitezen
denak batera hitz egitean.
Desagertzen bada gure hizkuntza,
Euskalduna galduko da,
arbasoek utzi zigutena
ez du merezi galtzea.

Egilea: Malen Laca

“ZUBELTZU”

Bertx90 Paper

3141
137

GAZTEAK



Harri bat besteaz kolpatzean
sortu zen lehen argia
txinparta horrek eman zieten
eguneroko bizia.
Gure senide, gure arbaso
eta gure familia
gizaki haiek merezi dute
gure mirespen guztia.

Egunak urte, urteak mende
bihurtu dira gerora
harria utziz, burdinarekin
hasi da aro gogorra.
Eta harekin lotuta dauden
gerrak datozkit gogora
botere nahian sortu zituzten
malkoak eta odola.

Gaur egunera iritsi gara
hainbat oztopo gaindituz
gure bizitza hobetu dugu
beste guztiak suntsituz.
Pauso berri bat eman behar da
egin dugunaz harriz
bakoitza argi baten moduan
bizi guztiak argituz.

Egilea: Josune Arakistain

1. SARIA DBH

EUSKARA ATZO, GAUR ETA BIHAR

Denon hitzetan zegoen Latina
orain dela 2.000 urte
eta orduan inork ez zuen
desagertuko zela uste
mundu guztiarentzat izan zen
izugarrizko ezuste
eta Latinak Euskarak duen
nibela izan nahiko luke.

Urrutiko eltzea da urrez
Gerturatu eta lurrez
Inglesak azala leuna du
Euskarak bete ximurrez
mundu osoko Inglesa baina
sumatzen dugu dardarrez
Latinari gertatu zaio ta
Inglesa dabil beldurrez.

2100 abenduak 3
ez da egun espeziala
aspaldi pasa baitzen garaia
eguna ospatzen zala
Euskal Herrian denok Euskaraz
tokatzen zaigun bezala
hizkuntza handia ez den arren
betiko iraun dezala.

Egilea: Antton Aizpurua

2. SARIA DBH

ESPETXEAN

I

6 urte beteko ditut laster
burdin zaharren artean
famiarengandik urruti
gelatxo itxi batean
noizean behin ikusi arren
kristal zikinen atzean
ez dira sentimendu berdinak
etxean edo espetxean.

II

Lo nengoela bota zidaten
nire etxeko atea
barrura sartu ta hartu ninduten
guztiz ikaraz betea
epaitu eta bota zidaten
urte askoko espetxea
azkenean heldu da garaia
bete dut nire epea.

III

Espetxetikan irten naizela
azkar zabaldu berria
eta herrira iritsi naiz ta
hau da hau ongi etorria!
Euskal Herria nirekin dago
baita famili guztia
horrelakoxea da nik beti
amestutako bizia.

Doinua: Aita semeak tabernan daude

Egilea: Ainhoa Oñederra

3. SARIA DBH

EUSKARA ATZO, ORAIN ETA GERO

Betagarrik zioenez
borroka dela bidea
Euskal Herrian Euskaraz
Oskorrik duen xedea
denok banaturik gaude
Xabier Leteren legea
kantari eta poetak
ez dira ezeren jabea
iraganaren aztarna
ez da inoiz ez hobea
injustiziaz beteta
herri txiki ta gurea
antzina baino antzinago
eraikiz euren bideak
munduko hizkuntza antigualena
da sufrimentuz betea.

Gernikako jauretxean
zuhaitza dugu aurrean
gure hizkuntzak horma bat
duen bezala parean
hizkuntza handien itzala
dugula beti atzean
eta hutsunea sortzen da
hauek ez erabiltzean
Erronka Euskara egoteko
ez behintzat ezerezean
lana egiten gaudelako
Euskaltzaindia izenean
baina erronka handiena
falta zaigula artean
hitz egiten konpontzen da
eta ez, berriz, jolasean.

Orain nahi dute batzuek
hitz eitea barra-barra
baina hauek izan dira
Euskera aldetik txarra
hitz egin asko eginda
sariketa da edarra
baina errealitatean
egia dela koldarra
jende gutxi hizketan da
nahiz ni ez izan bakarra
etorkizuna garratza
dela esatea txarra
eta eman behar dela
beti bezala tabarra
atzo bihar eta ondoren
euskera ez da baldarra.

Doinua: Habanera

Egilea: Lander Aranberri

SARI BEREZIA DBH



Kalera irten eta
ederra sorpresa,
jende asko zebilen
kendurik estresa.
Langile onak gara
ez daukagu presa
eta Euskara degu
gure lanabesa.

Zerbait nahi baldin bada
saiatu beharra,
horixe izan degu
giza lege zaharra.
Gozatu nahi degunez,
bizitza earra
borrokatuko gara
baturik indarra.

Hauxe degu bizitza
ehun urte barru,
errugabe anitz daude
kartzelan gatibu,
erlijioak ere
indarra galdu du,
baina euskaldunak gogor
jarraituko degu.

Doinua: Xarmagarria zara

Egilea: Manex Astigarraga

BERTSOA IDAZTEA

Idazteak baditu bastante aukera,
oso onak direlarik
gehienak gainera,
inportantea oso:
erabili Euskera!
ez zazu jarri behintzat
bertan Gaztelera.

Bikain idatzi behar da
irteera eukitzeko,
imajinazioa izan
ondo idazteko,
suerte pixka bat ere
diru asko lortzeko,
gustatu ein behar zaizu
zu ez aspertzeko.

Ez da oso erreza
zer den azaltzia,
nahiz eta hori pentsa
espero ulertzia,
idaztea delako
denon birtutia,
ideiak azaltzeko
gure iturria.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: Aitor Duñabeitia

ETA ORAIN ZER?

Mundu osoko bakea lortu
nahian dabilta antza
hori egin baino lehenago
lortu behar dute giltza
jarri dituzte herrialdeetan zehar
hainbat arau ta baldintza
eta batzuek zail egiten
digute guri bizitza.

Egoera zailean dago
azken aldian Euskara
Euskara mingainean dutela
ezin atera plazara
kalera atera naiz eta
bada erdera ta abarra
horrelakoxe jendearekin
ez goaz inora, hara!

Euskal Herriaren historia
zertxobait zaila izan da
gora behera ugari eta
horrenbeste zalaparta
denok joango gera aurrera
eta bidaia aparta
egingo dugu guk guztiok ta
haiek bukaeran eztanda.

Egilea: Leire Izagirre

ZUHUR JOKATU EZEAN...

*Ohe gainean noraezean,
iluntasuna begitan
ahul sentitzen naiz bat-batean,
malko bat jariatzean
sentimenduak biluztu nahian
baina indar gabezian
kideen negar malkoak, berriz,
ozenki belarrietan.*

*Argi disdira bat hurrunean
bertara gerturatzean
bakez hornitutako mundu bat
familia dut bestean.
Argiari aurre egin diot
haien grina ikustean
amets gogorretik esnatu naiz
poz eztanda bihotzean.*

*Ez naiz damutu mundu gogor hau,
gogo handiz hautatzean,
ezin nintzen hemendik urrundu,
ni behar nindutenean.
Ez dut inoiz gehiago edango
kotxea hartzerakoan,
pasarte hark balio izan dit
eskarmentu latz moduan.*

Egilea: Eneida Egaña

“GABONAK”

Azken hilabetea
hemen abendua,
afaltzera etorri da
famili osua.

Oilaskua jatera
dau goxo-goxua,
lagun askorekin bai
ambiente purua.

Kaleetan elurra
ari duenean
eta turroia asko
jaten dugunean
Olentzero, erregeak
gabon egunean
opariak ekartzen
dituzten gauean.

Aurten gabon hauetan
zorion guztian
opariz gainezka ta
elkartuz herrian.
Kanta-kantari gaude
herrian eskian
hurrengo urtean guk
zorion betian.

Egilea: Iñaki Sagarna

Gehiago hitz egitera
animatzen zaitut
gora egingo duenaren
esperantzak ditut
anima zaitez lagun
laguntza behar dut
bertso honen bitartez
azalduko dizut.

Aspaldi aspalditik
daukagu Euskara
erabiltzen badugu
euskaldunak gara
urteka eta urteka
galtzen ari dena
hemendik 100 urtera
imajinatzeraz.

Ibiltzen ez dugunok
gazteak bagara
zahar ta nagusiek
aurrera atera
euskara galduz gero
gure kulpa bada
hizkuntza dakienak
erabil dezala.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: June Mancisidor

HERIOTZA

HERIOTZAREN ESANAHIA

Denok dakigu zer den
berez heriotza
bakarrikan dakigu
idatzizko hitza
egizko esanahia
bilatzen gabiltza
aurkitzen duzunean
bidali eskutitza.

HERIOTZA HONDARTZAN

Zu ta zure lagunak
herriko hondartzan
hondarrakin jolasten
beste batzuk dantzan
denok lasai ta pozik
gure inozentzian
konturatu orduko
itota uretan.

HERIOTZAREN OSPAKETA

Hementxe gaude denok
ixil-ixilikan
bankutan eserita
Jonen omenean
apaiza hortxe dago
Joni buruz berban
lasai-lasai jarrita
erdiko palkuan.

Egilea: Tasio Fernández

Leihotik begirutzen
nago eseririk
nire parke kuttuna
dena suntsiturik
aurrean daukadana
sinetsi ezinik
lehengo edertasuna
dagoela galdurik.

Etorri nintzen alai
ilusioz beterik
harriturik nengoen
begiak zabalik
errepideak egin
zutela ikusirik
kea ta kutsadura
han eta hemendik.

Hemen ibiltzen nintzen
txikitan ni pozik
saltoka ta korrika
arazo bat barik.
Kotxeentzako bidea
ondo dagoelarik
baina umeentzako
ez dago parkerik.

***Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Maitane Iburguren***

EUSKARA

Euskal Herrrian gaude
gure hizkuntzakin
ondo entzun duzue
Euskaraz hitz egin.
Ikastolan Euskaraz
gogo askorekin
kalera irten eta
Gazteleraz egin.

Hizkuntza erabiltzen
hasi eta jarrai
asko hitz egiteko
ahalegindu ere bai.
Ez da asko kostatzen
gu garelako gai
hitz egin asko eta
maitatu ere bai.

Euskararen eguna
da guztiz santua
euskaraz mintzatzeko
heldu da ordua.
Egin diezaiogun
hementxe lekua
gure Euskara delako
guztiz maitatua.

Egilea: Jon Bastida

AURTENGO KURTSOA...

Buru hausteka nabil
aurtengo kurtsoan,
orientatzailearekin
hasita lanean.
Zientziak edo letrak
nik ditut aukeran,
zein hartuko ote dut
datorren urtean?

Nire klasean daukat
gustoko mutila,
esaten dit naizela
oso neska fina.
Edarra mutikua
jateko egina,
bera ikusi eta
bihotzeko mina.

Eskolan beti nabil
lanaz aspertuta,
ta hori gutxi bada
etxean bronkaka.
Ikasbidaiarekin
pazientzia galduta,
urte ona pasa dut
ta, agur Mendata!

Egilea: Sara Arin

GAZTE IZATEA

Gazteon arazoa
gurasoak dia
beraien agintetikan
bixkor libratzia
helburu handiena
txintxo portatzia
pakean utzi arte
gure protestia.

Aste guztia eskolan
tope estresatzen
etxeko lanak eta
Gizarte ikasten
ostirala heltzean
hasten gara pozten
larunbat arratseko
juergako prestatzen.

Kalean jolasean
etxean bronkaka
“Hau jaso! Bestea egin!”
Ama aginduka
eginbehar asko ta
denera presaka
astea bukatzen dut
zeharo lehertuta.

Doinua: Maritxu nora zoaz


Egilea: Gaizka Iribar

“ZUBELTZU”

Bertx40 Paper

SP41
BT

HELDUAK



ENDOIA ETA JOXE

-1-

Kondairak dio, ba omen zela
neskatila bat Idoia
garai hartako makila gerran
omen zena espioia;
harrapatuta eman zioten
hil arteraino jipoia,
hortikan dator bere izena
hori bere jatorria,
munduari so dagoen auzoa
horixe dugu Endoia. (bis)

-2-

Gauza on asko diren bezala
hau txikia da neurritan,
inbidiaz edo, Deba- Zestoak
zatiturik dute bitan
batek ta bestek ahazturikan
urteko zati handitan
bat eginikan bizi izateko
nola gauden irrikitan,
soilik Itziar izango gara
hemendik urte gutxitan. (bis)

-3-

Beti izanda gizon haundiak
emanak dituen landa:
Iñaxio Isasti albaitariak
hasiko du hoiien txanda,
Uztapide zen bertso txapeldun
txapeldunik inon bada,
Joxe Ziolar bertsolari ohi
gaur musikari emanda,
eguraldian iragartzaile
hor daukagu Joxe Landa. (bis)

-4-

Endoiak badu hirigune bat
gure gurasok egina:
eskola, eliza, apaizetxea
fedearen eragina,
elizan esku utzi zituzten
hortan zuten huts egina;
gero semeok egin genuen
txokotxo bat atsegina
legez eliza jabetua da
berez gurea da baina. (bis)

-5-

Txokotxo hori indartu nahi ta
geundelarik horretantxe,
zerutik mana zerion legez
azaldu zen gure Joxe.
Premiazkorik bazen auzoan
premiatzkoa zen hauxe
bere onurak inguru danak
nabarituak belaxe
auzotar asko sentitzen gara
geure etxean bezalaxe. (bis)

-6-

Mokau goxorik badauka bere
jateko zerrenda motxak:
baratzui zopa, porru patata,
ta nola ez baba beltzak,
plato ederrak osatzen ditu
berak hildako ordotxak,
ase ez duena bere txuleta
oilasko edo bildotsak,
proba ditzala Arginanok'e
famatzen ditun tripotxak. (bis)

-7-

Orain txokoa uztera hoa
zabaldu duk albisterik,
erabakia heuk hartu baduk
ezin esan ezezkorik.
Inon ez zegok hi bezalako
sukaldari berezkorik
hutsune hori betetzeko gai
ez zegok jende askorik,
ordezko norbait aurkitu arren
hik ez daukak ordezkorik. (bis)

-8-

Hi gabe ta guk jarraitutzea
ez duk izango xamurra
urte berria etor zitekek
hasieratik makurra
bertso honekin ematen diat
bi eratako agurra
Endoia bada askoren ustez
edertasunan gailurra
Hi haiz guztien laguna eta
abertzaleon ikurra. (bis)

Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko

Egilea: Iñaki Astigarraga

1. SARIA HELDUAK

HERRIAN ZEHAR JIRA-BIRA

-1-

Herrian zehar nabil,
jira eta bira,
paraje zahar eta
berriei begira.
Ikusi ditudanak
dakartzat orrira
inor ez bedi, arren,
haserretu; tira!
Nire burutapenak
besterik ez dira.

-2-

Bere izena: Tene
Mujikaren Plaza.
Zergatia ulertzen
ez dago erraza.
Bazterrera utzia;
iduri du Gaza.
Nik, behintzat, hartzen diot
baratzaren traza,
ugari baitago han
porru eta aza.

-3-

Santio Deba bada,
Hondarbeltz Mutriku.
Hurbil egonik ezin
elkarri ukitu.
Ibaiak bi aldeak
erdibitzen ditu.
Esango dut, norbaitek
nahi badu aditu:
zubi dotore batek
lotuko balitu...

-4-

Zaindu gabeko neska
ederren antzera,
distira galtzen joan da
urtetik urtera.
Zumardian jarrita,
bihotza minbera,
Kioskoari beha
egin dut galdera:
errukarria ez al da
bere egoera?

-5-

Irudi batek mila
hitzen balioa:
Jaieguna. Jendea
antzokira doa.
Antzerkia? Zinema?
Musika saioa?
Aretoak ZUBELTZU
izena daroa.
Itxi zenetik ez du
eten bere loa.

-6-

Txistua joz heldu da
Donostitik tren.
Bere zain dago Bilbon
abiatu dena.
Nahiz ta politikoki
ez izan zuzena,
garbi hitz egitea
ez al da onena?:
Egoera kaxkarra,
geltokiarena.

-7-

Nekez atzematen da
herriaren gaina;
arnasa hestu eta
kanpoan mingaina.
Eskilara azkarrak
baditugu baina
gehienetan geldirik
daude, alajaina!
Eskolumeek dute
meritu bikaina.

-8-

Goragoko konturik
ez dut aipatu nahi,
ene burua ez da
horretarako gai.
Niretzako Itziar
urruti dago, bai.
Behe alde honetan
nago lasai-lasai,
eztabaida zaharrak
noiz konponduko zai.

Egilea: Jokin Lasa
2. SARIA HELDUAK

INFERNURAKO BIDAIA

1

Bost eguneko kronika
burura dator aldika,
komisaldegi anker batean
bizitako kinka;
ez nuke nahi errepika,
esnatu ohi naiz zotinka,
bihotz gabeko borrero haiei
ezin ihesika.

2

Armez ongi hornituak
etxera ziren sartuak.
Senide eta gurasoentzat
zein une estuak;
burdinez lotu eskuak,
orroak eta marruak,
infernurako bidaia baten
lehenengo zantzuak.

3

Debatikan Donostira
beti lurrera begira,
mehatxu eta kolpeak ere
jada hasi dira
ta han harrera neurrira,
ikusirik haien hira
lurрак irentsi nazala beste
ez nuen desira.

4

Donostin kalabozoan
ez egoera gozoan
babes-legeak, gizalegeak
guztiak auzoan
galdeketa gau osoan
zazpi gizon erasoan
denak gainera zirti ta zarta
pausoan-pausoan.

5

Gero handik Madrilera,
ez ginen ez, alegera.
Gorputz guztia izuak dardar
ta zenbat galdera!
Han ere prest zen harrera,
eta horren arabera,
argi zegoen goaz infernu
batetik bestera.

6

Bost eguneko samina
Zaida deskriba ezina
ezin bereiztu sentimenduak
ezina eta mina;
krudeltasunaren grina
gezurra dirudi baina
gure saminez gozatzen zuten
haiek, alajaina!

7

Bosgarrengo egunean
Garzonen aldamenean
justiziarik ez dugu espero
bere jardunean;
dio era ozenean:
“Kartzelara zuzenean!”
Halere pozik infernu hartatik
irten ginenean.

8

Pertsonaren miseriak
zergatik hain ageriak?
Zein triste diran gorrotoa, hira
darien begiak.
Ote nire gabeziak?
Jota al nago ahuleziak?
Haiek gu beste gorrotatzeko
ez gaude heziak.

Doinua: Aizak hi, mutil mainontzi

Egilea: Karlos Larrañaga

3. SARIA HELDUAK

SEHASKATIK ITSASORA

Izan zara nire alboan,
aukeratu zaitut bidelagun,
iratzarrita edo ametsetan,
zurekin gau ta egun.

1

Hizkuntzen itsasora,
erreka xumea,
tanz-tanz jorratuz
pausoan bidea.
Izan gaitezen tanto
astinduz elea,
inoiz agor ez dadin
euskera gurea.

2

Sehaskatxoan dagon
niniak begira,
bere irrifarra ta
begien ditzira.
Negar eginda ere
larritzen ez gira,
malko guztiak tanto
bihurtzen baitira.

3

Zaindu beharra dauka
niniak bezala,
segi beharra dugu
lehengoan erara.
Saiatu denak daki
erraza ez dala,
beste biderik ez da
mantendu nahi bada.

4

Arbasoen ibaira
guztion tantoa,
iturburu beretik,
hortxe da gakoa.
Mantendu nahi ditugu
atzo ta gaurkoa,
sehaskatik eraikiz
ahots ta gogoa.

5

Hodeiak joango dira
eta etorriko,
ibaiadarrak jαιο
beste batzuk hilko.
Gaur tantoz blai zaitugu
irmo eta tinko,
Aitorren hizkuntz zaharra
geurea betiko.

Egilea: Jesus M^a Amasorrain
SARI BEREZIA HELDUAK



HITZA

1.

Sabel barruan jira ta bira
hortxe sortzen da gure bizitza
gurasoentzat izaten dena
zoriona edo ditxa. (bis)
Haur batek duen jakintza
aztertu nahian zabilta
ezin izaten da mintza
ideia asko kanporatu nahi
baina falta zaio giltza
ta giltz hori da gure bidean
Ahotan dabilgun hitza. (bis)

2.

Hitz batzuk dira lodi handiak
besteak, berriz, ikusezinak
Hontaz jabetzen erakusten du
aurrera doan adinak (bis)
haurra dago jakin minak
hitzak ikasteko grinak
haseran denak berdinak
baina gerora sortzen zaizkio
atsekabe eta minak
buruan ditu mila ideia
ta hitzak esanezinak. (bis)

3.

Ahotik aho hitzen balio
sarritan dago mailaz gorago
hitz berdinekin mintzatu arren
Batzunak dira gehiago (bis)
baina, hor zein hobeago
hala zein dotoreago
orekarik hor ez dago
hitz ederrekin ahoa bete
guztiz harriturik nago
bihotz barnetik datozen hoiak
dira askoz sakonago
ta askoz aberatsago.

4.

Hitzikan gabe hasi denbora
orain gutxitzen, jada banoa
kostata lortu nuen giltz hura
zahartu da ta badoa (bis)
nire azken hitz saioa
utzi nahirik arrastoa
hitzek dute balioa
ahoa itxita ez da ezer lortzen
kanporatzea sanoa
elkarrizketa baten beharraz
ohartzea da gakoa. (bis)

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Neurria: neurri berezia

Egilea: Maitane Unanue

AITA

1.

Eternidadez nago zai
eta ezin egon lasai
biok eta biona nahi
agian ez, edota bai,
bost minututan, arnasa bueltan
larritasunaren usai
makinatxo bat dugu aurrean
oraindik bustia darrai
marra txiki bat gero bi marra
begia dut malkotan blai
poz urduria, taupa hazia
aita-ama garela ai!
Sabeltxo horren puntutxo baten
bizi berria da ernai. (bis)

2.

Komunera lasterketa
tapa altxatzeko beta
jana gora behera buelta
eutsiz gogotsu kopeta.
Hilabeteak pasatu dira
dena sekretuz gordeta,
galdu liteke, beldurra hor da
inori ezin baieztatu
azkenik ere ekografian
entzuna bihotz hizketa
eskutik heldu, bizirik dago!
Muxuz dugu berriketa
irribarrea ezin dut kendu
aita izango naiz eta! (bis)

3.

Orain denen erantzuna
mila zorion laguna
pozaren ikuskizuna
malko denen erruduna
baina txikia bihurtu zaigu
gure erantzukizuna
ginekologo, emagin eta
analisien eguna
nire miresmen handiena da
ene maitean jarduna.
Hara! Ostiko bat eman dio
hautxoaren oihartzuna
zein txikia den zein handia dun
guretzako maitasuna. (bis)

4.

Hazi da txikian garra
ostiko denen indarra
bera guretzat bakarra
sabela gure izarra.
Milaka kezka ditugu baina
denbora hain da azkarra
erditze-aurreko klase ugari
ta zalantzak barra-barra.
“Aita non zaude?, Badator eta!”
amatxoren deiadarra
maleta hartu kotxera sartu
norabidea iparra.
“Eutsi amatxo! Iritsi gara!”
Dut lasaitzeko beharra! (bis)

5.

Hilabeteen azkena
ordu luzeen lehena
gu bion itxaropena
zuretzat nire kemena
irrintzi oihuz mina gaindi nahi
inpotentzi sentipena.

“Azken bultzadak; eutsi maitea!

Zu zara hemen onena!”

Ez da erraza izan hau baina
negar bat entzun hurrena.

“Tori amatxo, zure haurtxoa!”

Bizirik da ama sena
negar malkotan hau esan dizu

“Aitor da zure izena!” (bis)

Doinua: Munduko ilunabarra

Egilea: Zigor Agirre





“Denboraren makinan etorkizunera bidaiatu dut”

ANTOLATZAILEAK:



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

